

Antxiñako fotografixak



Gerra-denporako Aste Santua

Bi fotografixa honeik ikusitta eukiko dittuzue, seguruenik. Sarrittan ezpadabe, libururen batian agertu izan dira. Lehenago be komentau izan dogu **Oñatin Aste Santuan** egitten ziran **prozosiñuak** jentetsuak eta ikusgarri samarrak izaten zirala. Eguen Santuan Bidaurretatik urteten ebenak imajiña asko izaten zittuan, bederlatzi bat bai, herriko kalietan zihar ibiltten ziranak. **Ebaikutz Santukuan**, hiru irudi bakarrik kaleratu arren, etzan jente-faltarik izaten. Egun horretako bazkalostian, prozosiño aurretik, San Migel parrotxian teatro-antzeko ikuskizun luze bat egoten zan. Jesukristoren heriotzia eszenifikaitten zan: altara nagusixan kurtze haundi batian eguen Jesusen irudi artikulau bateri ultziak banan-banan kendu ondoren, korputza izara batzuekin jaisten zan, hil-kutxa batian sartzeko. Ondoren, herriko kalietan prozosiño luzia egitten zan Jesukristoren hilleta edo entierrua ospaketako, hiru imajiñakin: Jesusen **korputza hil-kutxan**, eta atzeratxua-go alkarren onduan **San Juan** gaztia eta **Ama Doloretakua**.

Baiña bi argazki honeittan bada berezittasun bat baiño gehixago. Lehenenguan, Jesukristoren hil-kutxiaren inguruan, **eskolta moduan**, eztoiaz lau guardia zibil, **lau soldadu** baiño. Eta bigarrenian, orduko abade, elizgizon eta herriko agintarixen atzetik, **konpaiña militar osua** agiri da, prozosiñua izten datozen emakumien aurretik. Arrazoia zera da: **fotografixok gerra-denporan ataratakuak** dirala, 1937ko martixaren 26xan, Ebaikutz Santu egunian. Handik egun gutxira hasiko zan Bizkaiko ofentsiba gogorra eta han parte hartzeko soldadu asko eguen Oñatin eta inguruko herrixetan. Hor prozosiñuan doian soldadu bat baiño gehixago hilgo zan apiril-maiatzeko eraso latz hareittan. Baita aurreko udazkenian Bizkai aldera igesik fandako hainbat miliziano eta gudari be. Anaiak anaien kontra. Eskuman agiri dan hiru ateko lokal hori **Merkiena** izena eukan tela-denda famaua izan zan, baiña orduan itxitta eguen militarrek Oñatin sartu ziranian konfiskau euelako. Abade kapadunak **Balentin Garmendia**, Oñatiko parrokoa, dala emuten dau, eta haren atzian erdixan doian lateran-darra **Karlos Arrizabalaga**, agustiñuetako abata.

J. E.

Argazkixok Udaleko artxiboan gordeten dan Zubia-fondokuak dira.
Eskerrak Izar Salaberri artxibozaiñari emun doskun samurtasunagatik.